Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2025eko otsailaren 6a, osteguna — 24 — Jueves, a 6 de febrero de 2025

DONOSTIAKO UDAL MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA

Iragarkia

Donostiako «Musika eta Dantza Eskola» Tokiko Erakunde Autonomoaren kudeatzaileak, 2025eko urtarrilaren 21ean, honakoa ebatzi du:

Musika eta Dantza Eskolako kudeatzaileak, 17.h) «Musika eta Dantza Eskola» Tokiko Erakunde Autonomoaren Estatutuetako 17.h) artikuluaren araberako eskumenak baimenduta, 2023ko otsailaren 23an Oinarri Orokorrak onartu zituen, Donostiako «Musika eta Dantza Eskola» Tokiko Erakunde Autonomoaren (TEA) plantilako plazetan karrerako funtzionario sartzeko hautaproben baldintzak arautzen dituztenak.

2023an Oinarri Orokorrak onartu zirenetik, arau-aldaketak izan dira, eta, horien ondorioz, aipatutako oinarrien alderdi batzuk aldatu behar dira, bai eta lanbide-sailkapeneko talde edo azpitalde bakoitzari dagozkion gai-zerrenda orokorrak ere.

Lehenik eta behin, indarrean jarri zen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua; arau horrek 4/2005 Legea indargabetzen du, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzena. Aldaketa horren ondorioz, aldatu egin behar dira oinarri orokorrek indargabetutako arauari egiten zizkioten aipamenak, bai eta gai horri buruzko gaiak ere lanbide-sailkapeneko talde edo azpitalde bakoitzean.

Bigarrenik, indargabetu egin zen Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretua onartuta. Beraz, arau horri buruzko arau-erreferentziak ere eguneratu egin behar dira.

Azkenik, hamaikagarren oinarrian, aplikatu beharreko arau osagarrien artean, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea jasotzen zen. Lege hori indargabetuta geratu zen Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari buruzko abenduaren 21eko 16/2023 Legea onartu zenean, eta, beraz, aipatutako legea ezabatu eta beste horrekin ordeztu behar da.

Hala ere, aldaketa zehatzak eta puntualak izan arren, komenigarria da aldatutako oinarri orokorrak osorik argitaratzea.

Oinarri Orokorren aldaketa langileen ordezkariekin negoziatu da.

Musika eta Dantza Eskola Tokiko Erakunde Autonomoaren Estatutuetako 17.h) artikuluak zehazten duenez, Kudeatzaileari dagokio oinarriak onartzea.

Aurreko guztia ikusita, Kudeatzaileak, eman zaizkion eginkizunak betez, honako hau

ESCUELA MUNICIPAL DE MÚSICA Y DANZA DE SAN SEBASTIÁN

Anuncio

El Gerente del Organismo Autónomo Local «Escuela de Música y Danza» de San Sebastián, en fecha 21 de enero de 2025, ha adoptado la siguiente resolución:

El Gerente de la Escuela de Música y Danza, en virtud de la competencia que se le atribuye en el art. 17.h) de los Estatutos del Organismo Autónomo Local «Escuela de Música y Danza», en fecha 23 de febrero de 2023 aprobó las Bases Generales de los procesos selectivos para el ingreso como funcionaria o funcionario de carrera al servicio del Organismo Autónomo Local (OAL) «Escuela de Música y Danza» de San Sebastián.

Desde la aprobación de las Bases Generales en el año 2023, se han producido cambios normativos que obligan a modificar algunos aspectos de las citadas bases, así como los temarios generales correspondientes a cada uno de los grupos o subgrupos de clasificación profesional.

En primer lugar, se produjo la entrada en vigor del texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, aprobado por el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo; dicha norma deroga la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres. Este cambio obliga a modificar las referencias que las bases generales hacían a la norma derogada, y los temas relativos a esta materia en cada uno de los grupos o subgrupos de clasificación profesional.

En segundo lugar, también quedó derogado el Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi, con la aprobación del Decreto 19/2024, de 22 de febrero, de normalización del uso del euskera en el Sector Público Vasco. Por tanto, las referencias normativas en relación a dicha norma también deben ser actualizadas.

Por último, en la base undécima, entre las normas supletorias aplicables, se recogía la Ley 2/2004, de 25 de febrero, de Ficheros de Datos de carácter personal de Titularidad Pública y de Creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos. Dicha Ley quedó derogada con la aprobación de la Ley 16/2023, de 21 de diciembre, de la Autoridad Vasca de Protección de Datos, por lo que debe eliminarse la Ley mencionada y sustituirla por esta otra.

No obstante, a pesar de tratarse de modificaciones concretas y puntuales, resulta conveniente que las Bases Generales modificadas se publiquen íntegramente.

La modificación de las Bases Generales ha sido objeto de negociación con la representación del personal.

El artículo 17.h) de los Estatutos del Organismo Autónomo Local «Escuela de Música y Danza» determina que la aprobación de las bases corresponde al Gerente.

A la vista de cuanto antecede, el Gerente, en virtud de las funciones que se han sido conferidas,

EK\CV GAO-I-2025-00495

Encuentra Músico
www.encuentramusico.es

EBAZTEN DU

Lehenengoa. Kudeatzailearen 2023ko otsailaren 23ko Ebazpenaren bidez onartu ziren Oinarri Orokorren aldaketa onartzea, Donostiako «Musika eta Dantza Eskola» Tokiko Erakunde Autonomoaren (TEA) plantillako plazetan karrerako funtzionario sartzeko hautaproben baldintzak arautzen dituztenak.

Halaber, aldatzen dira talde edo azpitalde bakoitzari dagozkion ikasgai-zerrenda orokorrak, Oinarri Orokorren eranskinean ezartzen direnak.

Bigarrena. Aldatu diren Oinarri Orokorrak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratzea.

Hirugarrena. Ebazpen honekin batera doazen oinarri orokorrak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera aplikatuko direla ezartzea.

Ebazpen hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete interesdunek, zuzenean, Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hala ere, partikularrek aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote kudeatzaileari, argitaratu eta hurrengo egunetik hilabeteko epean. Kasu horretan, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik jarri, harik eta berraztertzeko errekurtsoa berariaz ebatzi arte edo ustezko ezespena gertatu arte. Hala ere, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Donostia, 2025eko urtarrilaren 22a.—Mikel Romero Laibarra, Donostiako «Musika eta Dantza Eskola» Erakunde Autonomoaren kudeatzailea. (495)

Oinarri Orokorrak, Donostiako «Musika eta Dantza Eskola» Tokiko Erakunde Autonomoan karrerako funtzionario sartzeko hautaprobenak.

Lehenbizikoa. Xedea eta arau orokorrak.

1.1. Oinarri hauen helburua da alderdi orokor batzuk arautzea, enplegu eskaintza publikoa gauzatuz Donostiako «Musika eta Dantza Eskola» Tokiko Erakunde Autonomoaren (TEA) Plantillan hutsik egon eta deialdi bakoitzaren oinarri berezietan adierazitako plazetan karrerako funtzionario sartzeko egitekoak diren hautaprobetarako.

Oinarri hauen edukia deialdi bakoitzerako onartu eta argitaratuko diren oinarri bereziek osatuko dute.

1.2. Enplegu eskaintza publikoarekin bat etorriz, hauta proba bakoitzaren deialdian zehaztuko da sartzeko zer txanda eta modalitate dauden, bai eta txanda bakoitzeko sartzeko modalitate bakoitzetik zenbat plazatara sartu ahal izango den ere.

Deialdi bakoitzak sartzeko bi txanda izan ditzake: txanda librea eta barne sustapeneko txanda. Eta txanda bakoitzak sartzeko bi modalitate izan ditzake: orokorra eta desgaitasunen bat dutenentzat gordetako kupoa. Hala ere, desgaitasun intelektual edo mentala duten pertsonentzat gordetako lanpostuak eskaintzen direnean, deialdiak bereizita egingo dira.

Txanda librea:

— Orokorra.

— Desgaitasunen bat dutenentzat gordetako kupoa.

Barne sustapeneko txanda:

— Orokorra.

— Desgaitasunen bat dutenentzat gordetako kupoa.

RESUELVE

Primero. Aprobar la modificación de las Bases Generales que fueron aprobadas por Resolución de Gerencia de 23 de febrero de 2023, que regulan los aspectos generales que, en ejecución de la Oferta de Empleo Público, regirán los procesos selectivos para el acceso a la condición de funcionaria o funcionario de carrera en las plazas de la Plantilla del Organismo Autónomo Local (OAL) «Escuela de Música y Danza» de San Sebastián.

Asimismo, se modifican los temarios generales que para grupo o subgrupo se establecen en el documento anexo a las Bases Generales.

Segundo. Publicar las Bases Generales modificadas en el Boletín Oficial de Gipuzkoa en su integridad.

Tercero. Establecer que las Bases Generales que se adjuntan a la presente resolución resultarán de aplicación desde el día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Esta Resolución es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra ella, Recurso Contencioso-Administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el/la Gerente en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 22 de enero de 2025.—El gerente del Organismo Autónomo Local «Escuela de Música y Danza» de San Sebastián, Mikel Romero Laibarra. (495)

Bases Generales de los procesos selectivos para el ingreso como funcionaria o funcionario de carrera al servicio del Organismo Autónomo Local «Escuela de Música y Danza» de San Sebastián.

Primera. Objeto y normas generales.

1.1. El objeto de las presentes bases es regular los aspectos generales que, en ejecución de la Oferta de Empleo Público, regirán los procesos selectivos para el acceso a la condición de funcionaria o funcionario de carrera en las plazas de la Plantilla del Organismo Autónomo Local (OAL) «Escuela de Música y Danza» de San Sebastián que, encontrándose vacantes, se indiquen en las bases específicas de cada convocatoria.

El contenido de las presentes bases será completado con lo establecido en las bases específicas que se aprobarán y publicarán con motivo de cada convocatoria.

1.2. De conformidad con la Oferta de Empleo Público, en la convocatoria de cada proceso selectivo se determinarán los turnos de acceso y modalidades de acceso que existen, así como el número de plazas a las que se podrá acceder por cada una de las modalidades de acceso de cada turno.

Cada convocatoria podrá tener dos turnos de acceso: turno libre y turno de promoción interna. A su vez, cada turno podrá tener dos modalidades de acceso: general y cupo de reserva para personas con discapacidad. No obstante, cuando se oferten plazas reservadas para personas con discapacidad intelectual o mental las convocatorias se realizarán de forma independiente.

Turno libre:

— Acceso general.

— Cupo de reserva para personas con discapacidad.

Turno de promoción interna:

— Acceso general.

— Cupo de reserva para personas con discapacidad.

EK\CV GAO-I-2025-00495

Encuentra Músico
www.encuentramusico.es

Desgaitasun intelektual edo mentala dutenentzat gordetako lanpostuak (deialdi bereizia).

Txanda libretik eta barne sustapeneko txandatik lehiatzeko aukera ematen duten deialdietan, bi txanden artean aukeratu ahal izango dute 2.1 eta 2.2 oinarrietan ezarritako betekizunak betetzen dituzten pertsonek.

Gordetako kupo bat duten deialdietan, desgaitasunen bat duten pertsonek –hau da, % 33ko desgaitasuna edo handiagoa onartu zaienek– sartzeko modalitate orokorraren bidetik ala gordetako kupoaren bidetik saiatzearen artean aukeratu ahal izango dute.

Aukera hori ez da izango desgaitasun intelektual edo mentala dutenentzat gordetako lanpostuak eskaintzen dituzten deialdietan, halako deialdiak bereizita egingo direlako. Deialdi horietan jarduera intelektual edo mentalean % 33ko muga-gradua, gutxienez, duten pertsonek bakarrik hartu ahal izango baitute parte.

1.3. Izangaiek, deialdi bakoitzean, sartzeko txanda batean baizik ezin izango dute parte hartu. Zer aukera hartu nahi den berariaz jasota ez badago, edo deialdi bererako bi aukerak baliozko eran eskatu badira, izangaiak txanda librea aukeratu duela joko da.

Orobat, deialdi bakoitzeko modalitate batean baizik ezin izango da parte hartu. Zer aukera hartu nahi den berariaz jasota ez badago, edo deialdi bererako bi aukerak balio izateko moduan eskatu badira, izangaiak sartzeko modalitate orokorra aukeratu duela joko da.

1.4. Baldin bi txandetako edozeinetan desgaitasunen bat duen pertsona bat gordetako kupoaren bidez lehiatzen bada, eta dagozkion ariketak gainditua plazarik lortzen ez badu, betiere parte hartzen duen txanda berean sartzeko modalitate orokorreko beste izangai batzuek baino puntu gehiago lortuz gero, puntu kopuruaren ordenaren arabera sartuko da sartzeko modalitate orokorrean.

1.5. Barne sustapeneko txandaren barruan desgaitasunen bat duten pertsonentzat gordeta dauden eta hutsik geratzen diren plazak txanda horretako sartzeko modalitate orokorrekoei batuko zaizkie.

Barne sustapeneko txandako sartzeko modalitate orokorrean sartuta dauden eta hutsik geratzen diren plazak txanda libreko sartzeko modalitate orokorrekoei batuko zaizkie.

Txanda librearen barruan desgaitasunen bat duten pertsonentzat gordeta dauden eta hutsik geratzen diren plazak txanda libreko sartzeko modalitate orokorrekoei batuko zaizkie. Hala ere, txanda librean lehiatu diren desgaitasunen bat duten pertsonentzat gordetako eta betetako plazak ez badira iristen deialdiko plazen % 3 izatera, bete gabeko ehunekoa hurrengo enplegu eskaintza publikoan desgaitasunen bat dutenentzat gordetako kupoaren ehunekoari gehituko zaio, gehienez % 10 izateraino.

Bigarrena. Izangaiek bete beharreko baldintzak.

2.1. Hauta probetan parte hartu nahi duen pertsona orok ondoren adierazi diren betekizun orokorrak bete beharko ditu:

2.1.1. Nazionalitatez, espainiarra izatea.

Era berean, enplegu publikoetara funtzionario gisa sartzeko hauta probetan parte hartu ahal izango dute, espainiar nazionalitatea duten pertsonen baldintza berberetan:

a) Europar Batasuneko Estatu kideetako nazionalak.

b) Espainiar nazionalitatea eta Europar Batasuneko estatuetako nazionalitatea dutenen ezkontideek, duten nazionalitatea dutela ere, baldin eta zuzenbidearen arabera bananduta ez badaude; eta baita ere nazionalitatea duenaren ondorengoek eta haren ezkontidearen ondorengoek ere, zuzenbidearen arabera bananduta ez badaude, 21 urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, inoren mende bizi badira.

Plazas reservadas para personas con discapacidad intelectual o mental (convocatoria independiente).

En las convocatorias en las que se contemple la posibilidad de concurrir por el turno libre y por el turno de promoción interna, podrán optar entre ambos turnos las personas que cumplan los requisitos establecidos en las bases 2.1 y 2.2.

En las convocatorias en las que haya un cupo de reserva, las personas con discapacidad, que son las que tienen reconocido un grado de discapacidad igual o superior al 33 %, tendrán la posibilidad de optar entre la modalidad de acceso general y el cupo de reserva.

Esta posibilidad no existirá en las convocatorias en las que se oferten plazas reservadas para personas con discapacidad intelectual o mental, porque se convocarán de forma independiente. En dicha convocatoriapodrán participar, exclusivamente, las personas con un grado de limitaciones en la actividad intelectual o mental de, al menos, un 33 %.

1.3. Las personas aspirantes sólo podrán participar en cada convocatoria a través de un turno de acceso. En el caso de que no constara expresamente la opción deseada, o constaran las dos opciones válidamente formuladas para la misma convocatoria, se considerará que la persona aspirante opta por el turno libre.

Asimismo, sólo se podrá participar por una modalidad de acceso por cada convocatoria. Si no constara expresamente la opción deseada, o constaran las dos opciones válidamente formuladas para la misma convocatoria, se considerará que la persona aspirante opta por la modalidad de acceso general.

1.4. En el supuesto de que alguna persona con discapacidad concurra por el cupo de reserva de cualquiera de los dos turnos y que tras superar los ejercicios correspondientes no obtenga plaza y su puntuación sea superior a la obtenida por otras personas aspirantes de la modalidad de acceso general del mismo turno por el que participa, será incluida por su orden de puntuación en la modalidad de acceso general.

1.5. Las plazas reservadas para personas con discapacidad dentro del turno de promoción interna que queden desiertas se acumularán a las de la modalidad de acceso general del citado turno.

Las plazas incluidas en la modalidad de acceso general del turno de promoción interna que queden desiertas se acumularán a las plazas de la modalidad de acceso general del turno libre.

Las plazas reservadas para personas con discapacidad dentro del turno libre que queden desiertas se acumularán a las de la modalidad de acceso general del turno libre. No obstante, si las plazas reservadas y cubiertas por personas con discapacidad que han concurrido por el turno libre no alcanzan la tasa del 3 % de las plazas convocadas, el porcentaje no cubierto se acumulará al porcentaje del cupo de reserva de la siguiente Oferta de Empleo Público, con un límite máximo del 10 %.

Segunda. Requisitos de las personas aspirantes.

2.1. Las personas que deseen participar en los procesos selectivos deberán reunir los requisitos generales que se indican a continuación:

2.1.1. Tener la nacionalidad española.

También podrán participar para acceder, como personal funcionario, en igualdad de condiciones que las personas con nacionalidad española a los empleos públicos:

a) Las personas nacionales de los Estados miembros de la Unión Europea.

b) El cónyuge de las personas con nacionalidad española y de las personas nacionales de otros Estados miembros de la Unión Europea, cualquiera que sea su nacionalidad y siempre que no estén separados de derecho; así como sus descendientes y los de su cónyuge siempre que no estén separados de derecho, sean menores de veintiún años o mayores de dicha edad dependientes.

EK\CV GAO-I-2025-00495

Encuentra Músico
www.encuentramusico.es

c) Europar Batasunak egin dituen, Espainiak berretsi dituen eta langileen zirkulazio librea dakarten nazioarteko itunen aplikazio eremuan sartuta dauden pertsonak.

Hala ere, a), b) eta c) letretan ezarritako kasuetakoren batean sartuta dauden pertsonek ezin izango dute enplegu publiko hauetara sartu: zuzenean edo zeharka botere publikoa egikaritzen parte hartzea edo Estatuaren edo Administrazio publikoaren interesak babestea helburu duten eginkizunetan parte hartzea dakarten enplegu publikoetara. Halakoetan, enplegu publikoetara sartzeko ezintasuna berariaz jasota geratuko da deialdiko oinarri berezietan.

2.1.2. 16 urte beteta izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko adin muga gainditua ez izatea parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

Hala ere, gutxienez 18 urteko adina izatea eskatu ahal izango da agintea erabiltzea dakarten edo osasunerako arriskutsu diren eginkizunak dituzten gorputz eta eskaletara sartzeko. Halakoetan, gutxienez 18 urteko adina izan beharra berariaz jasota geratuko da deialdiko oinarri berezietan.

2.1.3. Zereginak egiteko gaitasun funtzionala izatea.

Betekizun hori betetzen dela frogatu beharko da hauta probak gainditutakoan, mediku azterketa eginez.

Hautaketa prozesua bukatu baino lehen ere, Epaimahai Kalifikatzaileak libre du, beharrezko dela irizten badio, desgaitasunen bat dutenentzako gordetako lanpostuetara jo nahi duten izangaiei mediku proba eta azterketa batzuk egitea. Proba eta azterketa horiek, hartarako izendatutako aditu-aholkulariek egingo dituzte, eta eskuratu nahi den lanpostuari dagozkion eginkizun ohikoak egiteko eskatzen den gaitasun funtzionala den ikusteko izango dira.

2.1.4. Diziplina espedienteren baten bidez edozein Administrazio Publiko, organo konstituzional edo autonomia erkidegoetako organo estatutarioetako zerbitzutik banatuta ez egotea, eta ebazpen judizial bidez gaitasungabetze erabatekoa edo berezia ez izatea enplegu edo kargu publikoetarako, banatu edo gaitasungabetu den kidegoan edo eskalan sartzeko.

Beste estaturen batekoa izanez gero, gaitasuna kenduta edo antzeko egoeraren batean ez egotea, eta bere estatuan enplegu publikoan jardutea galarazten dion diziplina zigorrik edo antzekorik jaso gabea izatea.

2.1.5. Eskatutako tituluak izatea; deialdiaren oinarri berezietan adierazitako tituluak, alegia. Hori «Titulazio eskakizunik gabeko talde profesionalak» osatuko dituzten E taldeko lanpostuetarako ezarritakoa gorabehera.

Atzerrian lortutako tituluren bat aurkeztuz gero, titulu horren baliozkotzea edota homologazioa egiaztatzen duen ziurtagiria izan beharko da.

Azken betekizun hori ez zaie aplikagarri izango lanbide arautuen arloan –Europar Batasuneko Zuzenbideko xedapenen babesean– beren kualifikazio profesionala onartu zaien izangaiei. Izangaiei berei dagokie onarpen hori frogatzea.

2.1.6. Adingabeekin ohiko harremana izatea dakarten lanpostuetan aritzeko, bete beharreko baldintza izango da epai irmo bidez sekula kondenatua ez izana sexu askatasunaren eta ukigabetasunaren aurkako delituren batengatik, hala nola, sexu erasoa eta sexu abusua, sexu jazarpena, exhibizionismoa eta sexu probokazioa, prostituzioa eta sexu esplotazioa, adingabeak galbideratzea eta gizakien salerosketa.

c) Las personas incluidas en el ámbito de aplicación de los Tratados Internacionales celebrados por la Unión Europea y ratificados por España en los que sea de aplicación la libre circulación de personas trabajadoras.

No obstante, las personas que se encuentren en alguno de los supuestos establecidos en las letras a), b) y c) no podrán acceder a los empleos públicos que directa o indirectamente impliquen una participación en el ejercicio del poder público o en las funciones que tienen por objeto la salvaguardia de los intereses del Estado o de las Administraciones públicas. En estos casos, la imposibilidad de acceder a los empleos públicos quedará expresamente recogida en las bases específicas de cada convocatoria.

2.1.2. Tener cumplidos 16 años de edad y no exceder, en su caso, de la edad máxima de jubilación forzosa, en la fecha en la que finalice el plazo de presentación de solicitudes de participación.

No obstante, se podrá exigir la edad mínima de 18 años para el acceso a los Cuerpos y Escalas que impliquen el ejercicio de autoridad o cuyas funciones supongan riesgo para la salud. En estos casos, la edad mínima de 18 años quedará expresamente recogida en las bases específicas de cada convocatoria.

2.1.3. Poseer la capacidad funcional para el desempeño de las tareas.

El cumplimiento de este requisito se acreditará una vez superado el proceso selectivo mediante la realización de un reconocimiento médico.

Si en el desarrollo del proceso selectivo el Tribunal Calificador lo considera necesario podrá recabar, de personas especialistas-asesoras nombrados al efecto, la realización a las personas aspirantes que participan por el cupo de reserva para personas con discapacidad de las pruebas y reconocimientos médicos precisos para la comprobación del cumplimiento de este requisito en lo relativo al desempeño de las actividades habitualmente desarrolladas en las plazas de la convocatoria a la que optan, sin necesidad de esperar a la finalización del proceso selectivo.

2.1.4. No haber sido separadas mediante expediente disciplinario del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas o de los órganos constitucionales o estatutarios de las Comunidades Autónomas, ni hallarse en inhabilitación absoluta o especial para empleos o cargos públicos por resolución judicial, para el acceso al cuerpo o escala de funcionario en el que hubiesen sido separadas o inhabilitadas.

En el caso de ser nacionales de otro Estado, no hallarse inhabilitadas o en situación equivalente, ni haber sido sometidas a sanción disciplinaria o equivalente que impida, en su Estado, en los mismos términos el acceso al empleo público.

2.1.5. Estar en posesión de la titulación exigida, que será la que se indique en las bases específicas de cada convocatoria. Esto sin perjuicio de lo que se establezca para las plazas del Grupo E que pasen a integrar las «Agrupaciones profesionales sin requisito de titulación».

En el caso de las titulaciones obtenidas en el extranjero se deberá estar en posesión de la correspondiente convalidación o de la credencial que acredite, en su caso, la homologación.

Este último requisito no será de aplicación a las personas aspirantes que hubieran obtenido el reconocimiento de su cualificación profesional, en el ámbito de las profesiones reguladas, al amparo de las disposiciones de Derecho Comunitario. Corresponde a las personas aspirantes acreditar dicho reconocimiento.

2.1.6. Será requisito para acceder a puestos de trabajo que supongan el ejercicio de profesiones, oficios y actividades que impliquen contacto habitual con menores, el no haber sido condenado o condenada por sentencia firme por algún delito contra la libertad e indemnidad sexual, que incluye la agresión y abuso sexual, acoso sexual, exhibicionismo y provocación sexual, prostitución y explotación sexual y corrupción de menores, así como por trata de seres humanos.

EK\CV GAO-I-2025-00495

Encuentra Músico
www.encuentramusico.es

Betekizun hori exijitu beharreko hautaketa prozesuetan, berariaz aditzera emango da oinarri berezietan.

2.1.7. Oinarri berezietan hauta proba bakoitzerako eskatzen den beste ezein betekizun, baldin eta, betiere, deialdiaren gai diren lanpostuetan hartutako eginkizunekin eta egin beharreko zereginekin zerikusi objektibo eta neurrizkoa badute.

2.2. Barne sustapeneko txandan parte hartzen duten izangaiek, 2.1 oinarrian adierazitako betekizun orokorrak betetzeaz gain, ondorengo betekizun berezi hauek ere bete behar dituzte:

2.2.1. Donostiako «Musika eta Dantza Eskola» TEAko karrerako funtzionario izatea, deialdi bakoitzaren oinarri berezietan zehaztutako sailkapen taldeko edo azpi-taldekoa.

Horretarako, izangaiak bi urte beteta izan behar ditu Donostiako «Musika eta Dantza Eskola» TEAko karrerako funtzionario gisa jatorriko eskalan eta sailkapen profesionaleko beheragoko azpitaldean edo taldean, azpitalderik ez bada sailkapen profesional horretan. Dena dela, azpitalde bereko funtzionarioek ere badute sartzeko aukera, baldin eta deialdiak hala jartzen badu behintzat, eta baita C1 azpitaldetik A taldera igotzekoa, barne sustapenaren bidez.

C2 azpitaldetik C1era pasatzeko barne sustapenerako, Euskal Enplegu Publikoaren Legeko (abenduaren 1eko 11/2022 Legeko) zortzigarren xedapen gehigarrian jasota dagoenaren arabera egokitu daiteke titulazioaren baldintza.

2.2.2. Zerbitzu aktiboan, zerbitzu berezietan edo postua gordeta izateko eskubidea dakarren beste edozein administrazio egoeratan egotea.

2.3. Desgaitasunen bat dutenentzat gordetako lanpostuetarako lehiatzea aukeratzen dutenek, 2.1 oinarrian ezarritako parte hartzeko betekizun orokorrak betetzeaz gainera, Administrazio organo eskumendunak % 33ko desgaitasuna edo handiagoa onartu diela frogatu beharko dute.

Desgaitasun intelektual edo mental bat dutenentzat gordetako lanpostuak dituzten deialdietan parte hartzen duten izangaiek 2.1 oinarrian ezarritako parte hartzeko betekizun orokorrak bete beharko dituzte, eta, gainera, bakarrik edo gehienbat % 33ko adimen desgaitasuna edo handiagoa ofizialki onartu zaiela frogatu beharko dute. Gehienbat adimen urritasunen bat dela erabakitzeko, kausa horren pisuak desgaitasuna aitortzeko egindako balioztapeneko faktore guztien % 85 baino handiagoa izan behar du.

2.4. 2.1, 2.2 eta 2.3 oinarrietan ezarritako betekizunak –eta oinarri berezietan ezarritakoak, halakorik baldin bada– parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunerako (egun hori barne) beteta izan beharko dira, 7.3.4 oinarrian euskarari buruz ezarritakoa izan ezik. Era berean, horiek guztiak hauta proben aldian ere bete behar dira, karrerako funtzionariotzat kargua hartzen den uneraino.

Parte hartzeko baldintzak betetzea egiaztatzen duten dokumentuak hautaketa prozesuaren amaieran eman behar dituzte behin betiko zerrendan aukeratutzat agertzen diren izangaiek, bederatzigarren oinarrian jartzen duen eran.

Hirugarrena. Parte hartzeko eskabideak aurkeztea.

3.1. Donostiako Udalaren Administrazio Elektronikoaren Erregelamenduak (2008ko ekainaren 23ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 119. zenbakia), 2022ko irailaren 29ko Osoko Bilkurak onetsitako aldaketaren ondoren (2022ko abenduaren 12ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 233 zk.), 28.4 artikuluan adierazten du hautaketa-prozesu bakoitzaren deialdian ezarri ahal izango dela Donostiako Udalarekin eta haren erakunde publikoekin bitarteko elektronikoen bidez harremanetan jartzeko betebeharra.

En los procesos selectivos en los que resulte exigible el cumplimiento del citado requisito se señalará expresamente en las bases específicas.

2.1.7. Cualesquiera otros requisitos que, en su caso, se exijan para cada proceso selectivo en las bases específicas, siempre que guarden una relación objetiva y proporcionada con las funciones asumidas y las tareas a desempeñar en las plazas objeto de la convocatoria.

2.2. Las personas aspirantes que participen por el turno promoción interna, además de cumplir los requisitos generales a los que se refiere la base 2.1, deberán cumplir los requisitos específicos que se indican a continuación:

2.2.1. Ser funcionaria o funcionario de carrera del OAL «Escuela de Música y Danza» de San Sebastián del Subgrupo o Grupo de clasificación indicado en las bases específicas de cada convocatoria.

Al efecto, las personas aspirantes deberán haber completado dos años de servicio como funcionaria o funcionario de carrera del OAL «Escuela de Música y Danza» de San Sebastián en la Escala de procedencia y en el inferior Subgrupo o Grupo de clasificación profesional, en el caso de que éste no tenga Subgrupo; sin perjuicio de la posibilidad de acceso de funcionarios y funcionarias del mismo Subgrupo en los casos en que la convocatoria así lo establezca así como de la promoción del Subgrupo C1 al Grupo A.

En la promoción interna del Subgrupo C2 al C1, se podrá ajustar el requisito de titulación a lo previsto en la disposición adicional octava de la Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco.

2.2.2. Hallarse en situación de servicio activo, servicios especiales o cualquier otra situación administrativa que conlleve derecho a reserva de puesto.

2.3. Quienes opten por concurrir a plazas reservadas para personas con discapacidad, además de reunir los requisitos generales de participación establecidos en la base 2.1, deberán acreditar que tienen reconocido, por el órgano competente de la Administración, un grado de discapacidad igual o superior al 33 %.

Las personas aspirantes que participen en las convocatorias en las que se oferten plazas reservadas para personas con discapacidad intelectual o mental deberán reunir los requisitos generales de participación establecidos en la base 2.1 y, además, deberán acreditar que tienen reconocido oficialmente un grado de discapacidad igual o superior al 33 % por discapacidad intelectual con carácter exclusivo o prevalente. La prevalencia vendrá determinada por un peso superior al 85 % de dicha causa sobre el conjunto de factores de la valoración que da lugar a la condición de discapacitado o discapacitada.

2.4. Los requisitos establecidos en las bases 2.1, 2.2 y 2.3, y los que en su caso se establezcan en las bases específicas, deberán poseerse el día en que finalice el plazo de presentación de solicitudes de participación, salvo lo establecido en la base 7.3.4 en lo que respecta al euskera. Asimismo, deberán poseerse todos ellos durante el procedimiento de selección hasta la toma de posesión como funcionaria o funcionario de carrera.

La documentación acreditativa de los requisitos de participación se entregará a la finalización del proceso selectivo por quienes figuren en la relación definitiva de personas seleccionadas, de conformidad con lo previsto en la base novena.

Tercera. Presentación de solicitudes de participación.

3.1. El Reglamento de Administración Electrónica del Ayuntamiento de San Sebastián (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 119, de 23 de junio de 2008) tras la modificación aprobada por el Pleno de fecha 29 de septiembre de 2022 (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 233 de 12 de diciembre de 2022), en su artículo 28.4 señala la posibilidad de poder establecer en la convocatoria de cada proceso selectivo, la obligatoriedad de relacionarse con el Ayuntamiento de San Sebastián y sus organismos públicos a través de medios electrónicos.

EK\CV GAO-I-2025-00495

Encuentra Músico
www.encuentramusico.es

Horren arabera, hautaketa-prozesu bakoitzaren oinarri espezifikoek zehaztuko dute izangaiek bitarteko elektronikoen bidez egin beharko dituzten prozesuarekin lotutako jarduketa eta izapide guztiak, eta, beraz, behartuta dauden udal-administrazioarekiko harremanak bitarteko elektronikoen bidez izatera.

Bitarteko elektronikoen bidez izapideak egiteko, Donostiako Udalak onartutako eta bere egoitza elektronikoan argitaratutako identifikazio- eta sinadura-sistemak erabili beharko dituzte izangaiek.

3.2. Eskabideak aurkezteko modua.

3.2.1. Oinarri espezifikoek ezartzen badute hautagaiek bitarteko elektronikoen bidez egin behar dituztela hautaketa-prozesuarekin zerikusia duten jarduketa eta izapide guztiak, parte hartzeko eskabidea Donostiako Udalaren web orriaren bidez aurkeztuko da, «Lan-eskaintza» atalaren barruan, dagokion deialdiaren aipamenean (identifikazioa eta sinadura elektronikoa behar dira).

3.2.2. Oinarri espezifikoek ez badute ezartzen izangaiek bitarteko elektronikoen bidez egin behar dituztela hautaketa-prozesuarekin zerikusia duten jarduera eta izapide guztiak, parte hartzeko eskabideak eredu ofizial eta normalizatuan aurkeztuko dira. Eredu hori oinarri espezifikoekin batera onartuko da, eta Donostiako Musika eta Dantza Eskolaren bulegoetan emango da (Atotxako Zelaia plaza, 3). Halaber, parte hartzeko eskabide-orria Udalaren helbide elektronikoan (www.donostia.eus) eta Donostiako Musika eta Dantza Eskolaren OALen egoitzan (www.donostiaeskola.eus) egongo da eskuragarri.

Eskabidea bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu nahi duten pertsonek Erregistro Elektronikoaren bidez egin ahal izango dute, parte hartzeko eskabidea behar bezala beteta erantsita, edo, bestela, Donostiako Udalaren www.donostia.eus webgunearen bidez, «Enplegu Eskaintza» atalaren barruan, dagokion deialdiaren aipamenean (identifikazioa eta sinadura elektronikoa behar dira). Azken kasu horretan, eskabidea horretarako prestatutako formulario elektronikoa betez aurkeztuko da.

Paperezko formatuko eskabideak Donostiako Musika eta Dantza Eskolako OALn (Atotxako Zelaia plaza, 3) edo Donostiako Udaleko Erregistro Orokorrean (Udalinfo zerbitzuaren bulegoetan: Arroka plaza, 5, Easo kalea, 41, Morlanseko biribilgunea, 1 eta San Martzial plaza, 4) aurkeztuko dira.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako edozein lekutan ere aurkeztu ahal izango dira.

Correos konpainiaren bulegoetan aurkezten diren parte hartzeko eskabideak gutun azal irekian entregatuko dira, Correosko langileek data eta zigilua jar diezaieten, ziurtatuak izan baino lehen, eskabideak aurkezteko epearen barruan. Kasu honetan bakarrik joko da eskabideak Posta bulegoan entregatu ziren egunean aurkeztu direla Udalaren Erregistro Orokorrean. Eskabidea da zigilua izan behar duena.

3.3. Interesdunak hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatuko du, eskabide-orriaren atal guztiak betez, eta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikuluarekin bat etorriz, erantzukizunpeko adierazpen bat egingo du, parte hartzeko baldintza guztiak betetzen dituela adieraziz, salbu eta euskararen ezagutzari dagokiona, zazpigarren oinarrian ezarritakoaren arabera arautuko baita; izan ere, egiazkoak dira baldintzak betetzeari buruz aitortutako datuak, eta konpromisoa hartzen du aitortutako datu guztiak agiri bidez egiaztatzeko. Erantzukizunpeko adierazpena aipatutako 39/2015 Legearen 69. artikuluan ezarritakoaren arabera egingo da.

De conformidad con ello, las bases específicas de cada convocatoria establecerán si las personas aspirantes deberán realizar por medios electrónicos todas las actuaciones y trámites relacionados con el mismo, quedando obligadas a relacionarse con la Administración municipal a través de medios electrónicos.

Para realizar los trámites por medios electrónicos, las personas aspirantes deberán utilizar los sistemas de identificación y firma admitidos por el Ayuntamiento de San Sebastián y publicados en su sede electrónica.

3.2. Forma de presentación de solicitudes.

3.2.1. En los casos en los que las bases específicas establezcan la obligatoriedad de las personas aspirantes de realizar por medios electrónicos todas las actuaciones y trámites relacionados con el proceso selectivo, la solicitud de participación se presentará mediante la página web del Ayuntamiento de San Sebastián www.donostia.eus dentro del apartado «Oferta de Empleo» en la reseña de la correspondiente convocatoria (requiere identificación y firma electrónica).

3.2.2. En los casos en los que las bases específicas no establezcan la obligatoriedad de las personas aspirantes de realizar por medios electrónicos todas las actuaciones y trámites relacionados con el proceso selectivo, las solicitudes de participación se presentarán en el modelo oficial y normalizado que se aprobará junto con las bases específicas y que será facilitado en las dependencias del OAL «Escuela de Música y Danza» de San Sebastián, sita en Atotxako Zelaia Plaza n.º 3. Asimismo, el formulario de solicitud de participación se encontrará disponible en la dirección electrónica del Ayuntamiento: (www.donostia.eus) y del OAL «Escuela de Música y Danza» de San Sebastián (www.donostiaeskola.eus).

Las personas que deseen presentar la solicitud por medios electrónicos podrán realizarla, o bien, mediante el Registro Electrónico, adjuntando la solicitud de participación debidamente cumplimentada; o bien, mediante la página web del Ayuntamiento de San Sebastián www.donostia.eus dentro del apartado «Oferta de Empleo» en la reseña de la correspondiente convocatoria (requiere identificación y firma electrónica). En este último caso, la solicitud se presentará completando el formulario electrónico habilitado para ello.

Las solicitudes en formato papel se presentarán en el OAL «Escuela de Música y Danza» de San Sebastián, sito en Atotxako Zelaia Plaza n.º 3 o en el Registro General del Ayuntamiento de San Sebastián ubicado en las oficinas del servicio de Udalinfo sitas en la Plaza Arroka n.º 5, c/ Easo n.º 41, Rotonda de Morlans n.º 1 y Plaza de San Marcial n.º 4 de San Sebastián.

También se podrán presentar en cualquiera de los lugares que señala el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Las solicitudes de participación que se presenten en las Oficinas de Correos se entregarán en sobre abierto, para ser fechadas y selladas por el personal de Correos antes de ser certificadas dentro del plazo de presentación de solicitudes de participación. Sólo en este caso se entenderá que las instancias han tenido entrada en el Registro en la fecha en que fueron entregadas en la Oficina de Correos. La instancia es la que debe estar sellada.

3.3. La persona interesada solicitará participar en el proceso selectivo cumplimentando todos los apartados del formulario de solicitud y realizará, de conformidad con el artículo 69.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, una declaración responsable señalando que cumple todos los requisitos de participación, excepto el referido al conocimiento de euskera, que se regirá por lo establecido en la base séptima, que son ciertos los datos declarados sobre el cumplimiento de los requisitos, y que se compromete a acreditar documentalmente todos los datos declarados. La declaración responsable se efectuará de conformidad con lo establecido en el artículo 69 de la citada Ley 39/2015.

EK\CV GAO-I-2025-00495

Encuentra Músico
www.encuentramusico.es

3.4. Deitzen den hautaketa prozesu bakoitzean, izangai bakoitzari ez zaio onartuko eskabide bat baizik.

Hainbat prozesu batera deitzen badira, izangai bakoitzak eskabide bat aurkeztu beharko du partu hartu nahi duen prozesu bakoitzerako.

3.5. Eskabideak aurkezteko epea 20 egun baliodunekoa izango da, deialdiaren laburpena *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Laburpenean, lehenago deialdia eta oinarri hauek argitaratu diren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren zenbakia eta data aipatuko dira.

Eskabidea garaiz eta behar bezala aurkezten ez bada, izangaia ez da onartuko.

3.6. Datu pertsonalak babestea.

Informazioaren tratamenduak kontuan hartuko ditu Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, pertsona fisikoen babesari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez; eta aplikagarri diren bestelako arauak.

Izangaiek hauta probetan parte hartzeko eskabide inprimakia aurkezteak berekin dakar aldizkari ofizialetan, iragarki tauletan, Donostiako Udalaren eta Erakunde Autonomoaren webgunean eta hauta probetako oinarri arautzaileak aplikatuz erabiltzen den beste ezein hedabidetan identifikatuak izateko baimena ematea. Orobat, berekin dakar izangaiak adostasuna ematea Donostiako «Musika eta Dantza Eskola» TEAk haren datu pertsonalak trata ditzan hautapen prozesu horretatik sortutako lan poltsak kudeatzeko.

Bide beretik, hautapen prozesuan zehar hautagaiek emandako dokumentazioa erabiltzea ere suposatzen du hautaketa prozesuan parte hartzeak.

Beste aldetik, izangaiek berariazko baimena eman beharko dute parte hartzeko eskaeran, beren datuak beste administrazio publiko batzuei lagatzeko. Datu lagapen horren helburu bakarra honako hau izango da: administrazio publiko horiek enplegu eskaintzak izangaiei egin ahal izatea, legez aurreikusi bezala. Izangaiaren onarpena berariaz jasotzen ez bada, lagapenaren aurka dagoela joko da.

Izangaiek emandako datu pertsonalen tratamendua Donostiako «Musika eta Dantza Eskola» TEAko Tratamendu Jardueren Erregistroan aurreikusten den «Langileen Hautaketa» izeneko tratamendu-jardueran sartuko da Jarduera hori Erakunde Autonomoaren Lehendakariordeak onetsi zuen 2019ko maiatzaren 29an emandako ebazpenean. Tratamendu Jardueren Erregistroa eskuragarri dago Donostiako «Musika eta Dantza Eskola» TEAren webgunean (www.donostiaeskola.eus).

Tratamenduaren organo arduraduna Donostiako «Musika eta Dantza Eskola» TEA da.

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko eta aurka egiteko eskubideak Donostiako «Musika eta Dantza Eskola» Erakunde Autonomoaren bulegoetan edo www.donostia.eus Donostiako Udalaren egoitza elektronikoan erabil daitezke.

Laugarrena. Izangaiak onartzea.

4.1. Parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea amaituta, onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartuko du hori dagokion organoak. Zerrenda hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Erakunde Autonomoaren iragarki oholean eta web orrian argitaratuko da. Ondoren, 10 egun izango dira ez

3.4. En cada proceso selectivo convocado sólo se admitirá una solicitud por cada aspirante.

En el caso de que se convoquen varios procesos simultáneamente, cada persona aspirante deberá presentar una solicitud para cada uno de los procesos en los que desee participar.

3.5. El plazo de presentación de solicitudes será de 20 días hábiles contados a partir del día siguiente a la publicación del anuncio del extracto de la convocatoria en el *Boletín Oficial del Estado*. En el extracto figurará la oportuna referencia al número y fecha del Boletín Oficial del Gipuzkoa en el que con anterioridad se haya publicado la convocatoria y las presentes bases.

La no presentación de la solicitud en tiempo y forma supondrá la inadmisión de la persona aspirante al proceso selectivo.

3.6. Protección de datos de carácter personal.

El tratamiento de la información tendrá en cuenta lo establecido en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales, en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de sus datos personales y a la libre circulación de estos datos, y demás disposiciones que resulten de aplicación.

La presentación por las personas aspirantes del formulario de solicitud para participar en un proceso selectivo implica su autorización para que se les identifique en las publicaciones procedentes que se lleven a cabo en los boletines oficiales, tablones de anuncios, en la página web del Ayuntamiento de San Sebastián y el Organismo Autónomo y en cualquier otro medio que se utilice en aplicación de las bases reguladoras del proceso selectivo. Asimismo, supone su consentimiento para que el OAL «Escuela de Música y Danza» de San Sebastián trate los datos personales para la gestión de las bolsas de trabajo que deriven del concreto proceso selectivo.

La participación en el proceso selectivo también implica el tratamiento de la documentación que han de aportar las personas aspirantes en el curso del procedimiento de selección.

Por su parte, en la solicitud de participación se requerirá el consentimiento expreso de las personas aspirantes para aceptar la cesión de sus datos a otras administraciones públicas, a los únicos efectos de que las personas aspirantes puedan recibir ofertas de empleo de esas otras administraciones públicas en los términos legalmente previstos, considerándose, de no constar expresamente la aceptación de la persona aspirante, que se opone a dicha cesión.

Epaimahai Kalifikatzaileak, betiere hautaketa prozesuaren barruan, 10 egun balioduneko epe bat irekiko du, oinarri berezien arabera balioztatzekoak diren merezimenduak alegatzeko eta egiaztatzeko. Epaimahaiak, merezimenduak oinarri berezietan ezarritako baremoei jarraituz balioztatu eta izangai bakoitzari baremo horien arabera dagokion puntu kopurua esleituko dio.

Lehiaketa aldia ez da baztertzailea izango, eta aldi horretan lortutako puntuak ezin izango dira kontuan hartu oposizio aldiko probak gainditzeko.

7.4.2. Merezimenduak alegatzeko, inprimaki normalizatu bat eskuratu ahal izango dute izangaiek. Inprimaki hori behar bezala beteta aurkeztu beharko dute beren merezimenduak baliozta daitezen nahi duten izangai guzti-guztiek; horretarako, izangaiak dituen merezimendu bakoitza banaka zehaztu beharko du.

conocimiento de estudios oficiales realizados en euskera que supongan la exención de la acreditación con títulos y certificaciones lingüísticas en euskera, según la normativa vigente en cada momento.

La fecha de obtención del perfil lingüístico o de los certificados o títulos convalidados o, en su caso, la fecha de obtención reconocimiento de estudios que supongan la exención debe ser anterior a la fecha de celebración del primer ejercicio de euskera.

Las personas exentas de realizar la prueba de euskera deberán aportar la documentación justificativa junto con el formulario de solicitud de participación en el proceso selectivo o durante el proceso selectivo, con el límite máximo del día fijado como fecha de celebración del primer ejercicio de euskera.

En el supuesto de que en una convocatoria no sea precisa la realización de la prueba de euskera, el Tribunal Calificador abrirá un plazo de 10 días hábiles que coincidirá en el tiempo con el plazo para la alegación y acreditación de los méritos de la fase de concurso. El último día de este plazo tendrá los mismos efectos que se otorgan en los párrafos anteriores al día de celebración del primer ejercicio de euskera.

No será preciso aportar un documento justificativo del nivel de conocimientos de euskera en los casos establecidos en la base 7.4.3.

7.3.5. Serán objeto de publicación los resultados provisionales de la prueba de euskera, así como un listado provisional en el que constarán los perfiles lingüísticos acreditados por las personas aspirantes mediante la presentación de la documentación justificativa.

A partir del día siguiente al de la publicación, las personas interesadas dispondrán de un plazo de 10 días hábiles para formular las reclamaciones que consideren oportunas.

Expirado el plazo de reclamaciones y resueltas las que, en su caso, se hubieran presentado, el Tribunal ordenará la publicación de los resultados definitivos.

7.3.6. Las plazas que tienen aparejados puestos de trabajo que tuvieran perfil lingüístico preceptivo no podrán ser provistas por aspirantes que no hubieran acreditado su cumplimiento en la forma prevista en estas bases.

No obstante, según lo dispuesto en el artículo 37.4 del Decreto 19/2024, de 22 de febrero, de normalización del uso del euskera en el Sector Público Vasco en los procesos de selección de puestos de trabajo con perfil lingüístico 4 preceptivo, caso de no acreditarse éste por ninguna de las personas aspirantes, se aplicará a dicho puesto el perfil lingüístico 3 a los únicos efectos de cobertura en tal convocatoria.

7.4. Fase de concurso.

7.4.1. La fase de concurso consistirá en el examen y valoración de los méritos previamente alegados y acreditados por las personas aspirantes que hayan superado la fase de oposición.

El Tribunal Calificador abrirá durante el proceso selectivo un plazo de 10 días hábiles para la alegación y para la acreditación de los méritos que en virtud de las bases específicas sean objeto de valoración. El Tribunal realizará la valoración de los méritos de conformidad con los baremos establecidos en las bases específicas y asignará a cada aspirante la puntuación que le corresponda con arreglo a esos baremos.

La fase de concurso no tendrá carácter eliminatorio, ni las puntuaciones obtenidas en la misma podrán tenerse en cuenta para superar las pruebas de la fase de oposición.

7.4.2. Para la alegación de los méritos se pondrá a disposición de las personas aspirantes un modelo normalizado que deberá presentarse debidamente cumplimentado por todas las personas aspirantes que pretendan que sus méritos sean valorados, para lo que deberán relacionar de forma individualizada cada uno de los méritos que posean.

EK\CV GAO-I-2025-00495

Encuentra Músico
www.encuentramusico.es

Oinarri espezifikoek ezartzen badute hautagaiek bitarteko elektronikoen bidez egin behar dituztela hautaketa-prozesuarekin zerikusia duten jarduketa eta izapide guztiak, merezimenduen alegazioa Donostiako Udalaren web orriaren bidez egin beharko da, «Lan-eskaintza» atalaren barruan, dagokion deialdiaren aipamenean (identifikazioa eta sinadura elektronikoa behar dira).

Oinarri espezifikoek ez badute ezartzen izangaiek bitarteko elektronikoen bidez egin behar dituztela hautaketa-prozesuarekin lotutako jarduera eta izapide guztiak, merezimenduen alegazioa 3.2.2 oinarrian adierazitako bideetako edozein erabiliz aurkeztuko da.

7.4.3. Merezimenduak egiaztatzeko, alegatutako merezimenduak justifikatzen dituzten agiriak aurkeztu beharko ditu izangaiak, salbu eta Erakunde Autonomoak bere bide propioen bidez horien berri izan badezake.

Alegatutako merezimenduaren edo euskararen jakite-mailaren egiaztagiria Donostiako «Musika eta Dantza Eskola» TEAn zerbitzuak eman dituztenen espediente pertsonalean jasota badago, ez da merezimenduen edo euskararen jakite-mailaren frogagiririk aurkeztu beharko, baina ezinbestekoa izango da merezimenduak alegatzea.

Era berean, ez da beharrezkoa izango merezimendu bat egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztea, baldin eta Donostiako «Musika eta Dantza Eskola» TEAk bitarteko elektronikoen bidez egin baditzake izangaien datuei eta dokumentuei buruzko egiaztapenak eta kontsultak, datu eta dokumentu horiek Administrazioak egin edo haren esku daudela eta. Hala ere, kasu horretan ere ezinbestekoa izango da interesdunak merezimendua alegatzea.

Merezimenduak alegatzeko epea irekitzean, Erakunde Autonomoak adieraziko du zer datu edo dokumentu bilduko dituen zuzenean, izangaiek aurkeztu beharrik izan gabe. Kontsultak kasu guztietan egingo dira, interesdunak horren kontra dagoela arrazoiak emanez adierazi ezean; kasu horretan, hark aurkeztu beharko ditu kontra egin dion kontsultari buruzko dokumentuak.

Arrazoi teknikoak direla medio, erakunde autonomoak ezin badu aurreko paragrafoan adierazitakoari dagozkion datu edo dokumenturen bat bildu, izangaiek merezimendu horiek egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko dituzte horretarako irekiko den epean.

7.4.4. Era berean, hautaketa prozesutik kanpo gelditutako izangaiek ere alegatu, egiaztatu eta aurkeztu behar dituzte, zer gerta ere, beren merezimenduak, baldin eta kanporatze horren aurka erreklamaziorik aurkeztu badute eta erreklamazioa behin betiko ebazpenaren zain baldin badago. Merezimendu horiek oinarri honetan adierazitako epe eta baldintza berberetan alegatu eta egiaztatu behar dira.

7.4.5. Urteka, seihilekoka edo hilabeteka baloratzen diren merezimenduak kalkulatzeko, alegaturiko aldiak batuko dira, egun kopuruak kontuan hartuz, eta, ondoren, erreferentzi aldia baino txikiagoak diren hondarrak baztertuko dira. Alde horretatik, 30 egun naturalen batura hartuko da hilabetetzat. Ondorio horietarako, 365 egun naturalen batura hartuko da urtetzat; 180 egun naturalen batura seihilekotzat; eta 30 egun naturalen batura hilabetetzat.

Oinarri berezietan adierazi baldin bada egindako zerbitzuak balioetsiko direla, lanaldi osoan, % 100eko dedikazioan egindako zerbitzuei buruz ezarriko dira baremoak. Osoak ez diren lanaldiak proportzionalki baloratuko dira. Ez dira balioetsiko egindako zerbitzuen egiaztagiriak, baldin adierazita ez badute zein lanaldi erregimenekin egin diren eta, murriztapenik baldin bazuten, zein lanaldi murriztapenekin egin diren.

En los casos en los que las bases específicas establezcan la obligatoriedad de las personas aspirantes de realizar por medios electrónicos todas las actuaciones y trámites relacionados con el proceso selectivo, la alegación de méritos se deberá realizar mediante la página web del Ayuntamiento de San Sebastián www.donostia.eus dentro del apartado «Oferta de Empleo» en la reseña de la correspondiente convocatoria (requiere identificación y firma electrónica).

En los casos en los que las bases específicas no establezcan la obligatoriedad de las personas aspirantes de realizar por medios electrónicos todas las actuaciones y trámites relacionados con el proceso selectivo, la alegación de méritos se presentará por cualquiera de los medios indicados en la base 3.2.2.

7.4.3. La acreditación de los méritos consistirá en la aportación por la persona aspirante de la documentación justificativa de los méritos alegados, excepto en aquellos casos en los que el Organismo Autónomo pueda tener constancia de los mismos mediante sus propios medios.

No se deberá aportar justificación documental de los méritos, ni del nivel de conocimientos de euskera, cuando el documento acreditativo del mérito alegado o de los conocimientos de euskera consten en el expediente personal de quienes han prestado servicios en el OAL»Escuela de Música y Danza» de San Sebastián, pero será imprescindible la alegación de los méritos.

Tampoco será necesario aportar la documentación acreditativa de un mérito en los casos en los que el OAL «Escuela de Música y Danza» de San Sebastián pueda realizar por medios electrónicos las comprobaciones y consultas necesarias de los datos y documentos de las personas aspirantes que hayan sido elaborados u obren en poder de la Administración. No obstante, en este caso también será imprescindible que la persona interesada haya alegado el mérito.

El Organismo Autónomo indicará al abrir el plazo de alegación de méritos qué datos o documentos serán recabados directamente, sin necesidad de ser aportados por las personas aspirantes. Las consultas se realizarán en todos los casos salvo que la persona interesada haga constar su oposición motivada, en cuyo caso deberá aportar los documentos referidos a la consulta a la que se opone.

En el supuesto de que el Organismo Autónomo, por motivos técnicos, no pueda recabar alguno de los datos o documentos correspondientes a lo indicado en el párrafo anterior, las personas aspirantes deberán presentar la documentación acreditativa de dichos méritos en el plazo que se abrirá a esos efectos.

7.4.4. En el mismo plazo y con las mismas condiciones señalada en la presente base, también deberán presentar de manera cautelar la alegación y la acreditación de méritos las personas que, pese a estar excluidas del proceso selectivo, hayan presentado reclamación contra dicha exclusión y se encuentre la misma pendiente de resolución definitiva.

7.4.5. Aquellos méritos que se valoren en función del tiempo transcurrido por períodos de años, semestres o meses, se computarán realizando la suma en días de los períodos alegados, y una vez realizada la misma, despreciándose las fracciones inferiores al período de referencia. A estos efectos se entenderá por mes, la suma de 30 días naturales. A estos efectos se entenderá por año, la suma de 365 días naturales; semestre, la suma de 180 días naturales y mes, la suma de 30 días naturales.

En los supuestos en los que las bases específicas señalen que serán objeto de valoración los servicios prestados, los baremos se establecerán con referencia a servicios prestados en jornada completa de trabajo, con una dedicación del 100 %. Las jornadas no completas se valorarán proporcionalmente. No se valorarán los certificados acreditativos de los servicios prestados que no señalen el régimen de jornada en el que se han prestado y el porcentaje de la reducción de jornada, en su caso.

EK\CV GAO-I-2025-00495

Encuentra Músico
www.encuentramusico.es

Lan egindako alditzat baloratuko da, kasu guztietan, hautagaiak senideak zaintzeko edo genero-indarkeriagatiko eszedentzia-egoeran egon diren denbora; amatasuna eta aitatasuna babestea edo bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa kontziliatzen laguntzea xede duten lanaldi-murrizketei edo baimenei egotz dakiekeen denbora; eta enplegatu publikoek genero-indarkeriagatiko baimenak baliatu dituzten denbora ere.

Kontratua edo izendapena lanaldi osoan lan egiteko ez bada, dagokion lanaldiaren ehunekoa adieraziko da.

7.4.6. Parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea bukatu aurretik bildutako merezimenduak bakarrik hartuko dira kontuan. Hala ere, aintzakotzat hartu behar da 7.3.4 oinarrian euskarari buruz ezarritakoa.

Merezimenduak aurkezteko jarritako epean adierazi eta egiaztatzen ez diren merezimenduak ez dira inolaz ere balioetsiko. Ez dira balioetsiko, orobat, aipatzen dituzten merezimenduak balioetsi ahal izateko dagokion baremoaren arabera izan behar diren datuak ez dituzten dokumentuak ere.

Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 30.6 artikuluari jarraiki, behin-behineko langileentzako aurreikusitako postuetan egindako zerbitzuak ez dira balioetsiko, ez eta bekak eta prestakuntza praktikak ere. Era berean, ez dira baloratuko lan-kontratuz lotu gabeko langile gisa emandako zerbitzuak, izaera zibilekoak zein merkataritzakoak izanik ere haiek; ez eta enplegu-politika aktiboen garapenetik eratorritako programetan zerbitzu ematen duten edo eman duten obra edo zerbitzu jakin bateko aldi baterako langile gisa emandako zerbitzuak ere, edozein administrazioren funts propioekin zein kanpoko dirulaguntzekin finantzatuta izanda ere haiek.

Era berean, lehiaketa aldian ez dira kontuan izango 2.1.5. oinarriaren arabera hautaketa prozesuan parte hartzeko betekizun gisa aurkeztu beharreko tituluak.

7.4.7. Epaimahai Kalifikatzaileak merezimenduak balioztatuko ditu eta lehiaketa aldiko behin-behineko kalifikazioak argitaratuko ditu. Kalifikazio horiekin batera, dokumentuak zuzendu behar dituzten izangaien zerrenda argitaratuko da. Zerrenda horretan, berariaz aipatuko da zein merezimenduren egiaztagiriak zuzendu behar diren. Argitaratze horren biharamunetik hasita, izangaiek 10 egun balioduneko epea izango dute egoki deritzeten erreklamazioak egiteko eta dagozkien zuzenketak egiteko. Epe hori bukatutakoan, aurkeztutako erreklamazio eta zuzenketak aztertuko ditu epaimahaiak, eta gero lehiaketa aldiko behin betiko emaitzak argitaratuko ditu. Era berean, interesdun bakoitzari bere erreklamazioaren ebazpen arrazoituaren jakinarazpen pertsonala bidali ahal izango dio.

Zortzigarrena. Azken kalifikazioak. Lanpostuak aukeratu eta esleitzea.

8.1. Azken kalifikazioak.

Hautaketa prozesuaren azken kalifikazioa honela kalkulatuko da: oposizio aldian ateratako puntuak gehi lehiaketa aldian ateratakoak (lehiaketa aldirik izan bada), gehi euskarako jakintzen balioztapena (hizkuntza-eskakizuna merezimendua denean, eta ez betekizuna).

Azken kalifikazioan berdinketa izanez gero, ordena ezartzeko honako irizpide hauek beteko dira, hurrenez hurren:

1. Emakumeei emango zaie lehentasuna emakumeak % 40 baino gutxiago diren kidego, eskala eta kategoriatan, Donostiako «Musika eta Dantza Eskola» TEAn, salbu eta beste izangaiak ezaugarriren bat baldin badu sexu arrazoiengatik bereizketa egitekoa ez dena eta neurri hau ez aplikatzea justifikatzen duena,

Se valorará como periodo trabajado, en todo caso, el tiempo en el que las personas candidatas hayan permanecido en la situación de excedencia por cuidado de familiares o por violencia de género, el tiempo atribuible a reducciones de jornada o permisos que tengan por finalidad prevista proteger la maternidad y paternidad, o facilitar la conciliación corresponsable de la vida personal, familiar y laboral, así como el tiempo en el que las empleadas públicas hayan hecho uso de permisos por razón de violencia de género.

Si el contrato o nombramiento no fuera para trabajar a jornada completa, se indicará el porcentaje de jornada correspondiente.

7.4.6. Únicamente se valorarán los méritos referidos a circunstancias previas al cierre del plazo de presentación de solicitudes de participación. No obstante, se debe tener en cuenta lo establecido en la base 7.3.4 en lo que se refiere al euskera.

En ningún caso podrán valorarse los méritos que no hubieran sido debidamente alegados y acreditados en el plazo establecido para ello. Tampoco se procederá a la valoración de aquellos documentos que no contengan los datos que, según el baremo correspondiente, sean necesarios para valorar los méritos a que se refieren.

No será objeto de valoración la prestación de servicios en puestos de trabajo de carácter eventual, tal y como prevé el artículo 30.6 de la Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco ni las becas y prácticas formativas. Tampoco se valorarán los servicios prestados como personal vinculado por un contrato no laboral de prestación de servicios, sea de naturaleza civil o mercantil; ni como personal laboral temporal bajo la modalidad de obra o servicio determinado que presta o haya prestado servicio en los programas derivados del desarrollo de políticas activas de empleo, financiados tanto con fondos propios de cualquier administración como con subvenciones externas.

Asimismo, no se tendrá en cuenta en la fase de concurso la titulación académica que se posea como requisito de participación a efectos de lo previsto en la base 2.1.5.

7.4.7. El Tribunal Calificador realizará la valoración de los méritos y publicará las calificaciones provisionales de la fase de concurso. Junto con esas calificaciones se publicará la relación de aspirantes que deben subsanar la documentación, con la mención expresa del mérito cuya acreditación ha de subsanarse. A partir del día siguiente al de la citada publicación las personas aspirantes dispondrán de un plazo de 10 días hábiles para formular las reclamaciones que estimen oportunas y para realizar las subsanaciones que resulten procedentes. Finalizado este plazo, el Tribunal analizará las reclamaciones y las subsanaciones presentadas, tras lo que hará públicas las calificaciones definitivas de la fase de concurso, sin perjuicio de la comunicación personal a cada persona interesada de la resolución motivada de su reclamación.

Octava. Calificaciones finales. Elección y adjudicación de puestos.

8.1. Calificaciones finales.

La calificación final obtenida por cada aspirante en el sistema selectivo vendrá determinada por la suma de las puntuaciones obtenidas en la fase de oposición y, en su caso, en la fase de concurso, así como por la valoración de los conocimientos de euskera cuando el perfil lingüístico constituya mérito y no requisito.

En caso de empate en la calificación final, el orden de prelación se establecerá atendiendo, sucesivamente, a los siguientes criterios:

1.º Se dará prioridad a las mujeres en aquellos cuerpos, escalas y categorías del OAL «Escuela de Música y Danza» de San Sebastián en los que su representación sea inferior al 40 %, salvo que concurran en el otro candidato motivos que, no siendo discriminatorios por razón de sexo, justifiquen la no aplicación de la

EK\CV GAO-I-2025-00495

Encuentra Músico
www.encuentramusico.es

hala nola enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituen beste talderen batekoa izatea. Oinarri bereziek adieraziko dute, deialdi bakoitzerako, ea berdinketa desegiteko irizpide hau aplikatzea ahalbidetzen duten baldintzak betetzen diren edo ez.

2. Oposizio aldian puntuaziorik handiena lortzea.

3. Ariketa praktikoen baturan puntuaziorik altuena lortzea.

4. Oinarri berezietan zerrendatutako merezimenduetan puntu gehien lortzea, oinarri horietan jarritako hurrenkeran.

5. Hala ere berdinketarik hautsi ezean, zozketaz egingo da. Zozketara pertsona interesatuak joan ahal izango dira.

8.2. Azken kalifikazioak, lehentasun ordena eta eskainitako postuak argitaratzea.

Epaimahai Kalifikatzaileak azken kalifikazioak eta kalifikazio horietatik ondorioztatutako lehentasun ordena zehaztu eta gero, organo eskudunera eramango ditu. Organo horrek, Epaimahaiak igorritakoari guztiz loturik, ebazpena emango du. Ebazpen horren bitartez, azken kalifikazioen zerrendak argitara daitezen aginduko du, honako hauek kontuan hartuta: sartzeko txanda (librea edo barne sustapenekoa), sartzeko modalitatea (orokorra edo desgaitasunen bat dutenentzat gordetako kupoa) eta deialdiko lanpostuen hizkuntza-eskakizuna. Azken kalifikazioekin batera, hautagai bakoitzari dagokion lehentasun ordena eta eskaintzen diren lanpostuen zerrenda argitaratuko da, baita zerrenda hori lehenago argitaratu bada ere.

Deialdiko plaza kopurua handitu egin daiteke hautaketa prozesuan edozein arrazoi dela eta hutsik gera daitezkeen tokien arabera, baldin eta hala xedatzen bada deialdiko oinarri berezietan. Lanpostu handitze hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Erakunde Autonomoaren iragarki taulan eta webgunean argitaratuko da. Bertan, hizkuntza-eskakizuna betetzeko nahitaezko data esleituta duten lanpostuen kopurua jasoko da, eta, edonola ere, azken kalifikazioak argitaratu aurretik adostu eta argitaratu beharko da.

8.3. Lanpostua aukeratzea.

8.2. oinarrian xedatu bezala, azken kalifikazioekin batera eskainitako postuen zerrenda argitaratuko da. Postu horien zehaztapenei buruzko informazioa Lanpostuen Zerrendan emango da. Dena dela, izangaiek lanpostuei buruzko informaziora jotzeko bidea ere izango dute.

Argitaratze agindua emango duen ebazpenean ezarriko da azken kalifikazioen zerrendetan dauden pertsonek 10 egun balioduneko epea izango dutela eskainitako lanpostuak lehentasun ordenan adieraz ditzaten. Lanpostuak hautatzeko prozesuan parte hartuko dute txanda, sartzeko modalitate eta hizkuntza-eskakizun bakoitzerako eskaini den lanpostu kopuruaren % 150eko lehentasun ordena edo txikiagoa duten pertsonek.

Lanpostuak aukeratzeko, lehentasuna izango dute barne sustapeneko txandan parte hartu duten hautagaiek, txanda librean parte hartu dutenen aurretik, eta txanda bakoitzaren barruan, azken kalifikazioen arabera ezarritako lehentasun ordenari jarraituko zaio.

Hautagaiek libre adieraziko dute zein den beren lehentasun ordena. Nahitaezko hizkuntza-eskakizuna duen lanpostua betetzeko eskatutako maila dutela ziurtatu dutenek, aukera izango dute lanpostu horietara zein baldintza hori ez duten lanpostuetara aurkezteko. Halaber, baldin eta deialdi bereko lanpostu batzuek eskakizun jakin batzuk badituzte, eta eskakizun horiek ez badira eskainitako lanpostu guztietarako eskatzen, eskakizun horiek betetzen dituzten hautagaiak bi mota horietako lanpostuetara aurkeztu ahal izango dira.

medida, como la pertenencia a otros colectivos con especiales dificultades para el acceso al empleo. Las bases específicas señalarán para cada convocatoria si concurren o no las circunstancias que posibilitan la aplicación de este criterio de desempate.

2.º A favor de quien hubiera obtenido mayor puntuación en la fase de oposición.

3.º A favor de quien hubiera obtenido mayor puntuación en el conjunto de los ejercicios prácticos.

4.º A favor de quien hubiera obtenido mayor puntuación en los méritos enumerados en las bases específicas, por el orden en el que figuran en dichas bases.

5.º Si persistiera el empate el orden de prelación se establecerá por sorteo, al que podrán asistir las personas interesadas.

8.2. Publicación de calificaciones finales, orden de prelación y puestos ofertados.

Una vez que el Tribunal Calificador haya determinado las calificaciones finales y el orden de prelación derivado de las mismas, las elevará al órgano competente. Dicho órgano, con vinculación plena a lo elevado por el Tribunal, emitirá una resolución mediante la que ordenará la publicación de las relaciones que contengan las calificaciones finales atendiendo al turno de acceso (libre o de promoción interna), a la modalidad de acceso (general o cupo de reserva para personas con discapacidad) y al perfil lingüístico de las plazas convocadas. Junto con las calificaciones finales se publicará el orden de prelación que le corresponde a cada aspirante, así como la relación de puestos ofertados, incluso en el supuesto de que ésta relación ya se hubiese publicado con anterioridad.

El número de plazas convocadas podrá ser ampliado en función de las vacantes que se produzcan por cualquier causa durante el desarrollo del proceso selectivo si así lo establecen las bases específicas de la convocatoria. Dicha ampliación se hará pública en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en el tablón de anuncios en la página web del Organismo Autónomo, haciendo constar el número de plazas que tengan asignada fecha de preceptividad en el cumplimiento del perfil lingüístico y, en todo caso, deberá ser acordada y publicada con anterioridad a la publicación de las calificaciones finales.

8.3. Elección de puestos de trabajo.

Tal y como establece la base 8.2, junto con las calificaciones finales se publicará la relación de puestos ofertados. Se facilitará información sobre las determinaciones de dichos puestos en la Relación de Puestos de Trabajo, sin perjuicio de la posibilidad de las personas aspirantes de acceder a la información sobre los puestos de trabajo.

En la resolución que ordene la publicación se establecerá que las personas que figuran en las listas de las calificaciones finales dispondrán de un plazo de 10 días hábiles para manifestar su orden de preferencia respecto a los puestos ofertados. Participarán en el proceso de elección de puestos las personas cuyo orden de prelación sea igual o inferior al 150 % del número de plazas convocadas por cada uno de los turnos, modalidades de acceso y perfiles lingüísticos.

Para la elección de puestos tendrán preferencia las personas aspirantes que hayan concurrido por el turno de promoción interna sobre las que hayan concurrido por el turno libre, y dentro de cada uno de ellos se seguirá el orden de prelación establecido en función de las calificaciones finales.

Las personas aspirantes procederán a señalar su orden de preferencia libremente. Quienes hayan acreditado el nivel requerido para las plazas que lleven aparejado un puesto con perfil lingüístico preceptivo, optarán tanto a dichos puestos como a los que no tengan dicha condición. Asimismo, cuando en una misma convocatoria algunos puestos tengan determinados requisitos que no sean exigibles a todos los puestos ofertados, las personas aspirantes que cumplan esos requisitos optarán a ambos tipos de puestos.

EK\CV GAO-I-2025-00495

Encuentra Músico
www.encuentramusico.es

Eskainitako lanpostuen lehentasun ordena epearen barruan eta ezarritako eran adierazten ez duenari esleitzeke dagoen azken lanpostua esleituko zaio, baina, horretarako, lanpostu horretarako eskakizunak nahitaez bete beharko ditu.

Dena den, baldin deialdi batean lanpostu bererako dotazioak baino eskaintzen ez badira, ez da lanpostuak hautatzeko prozesurik egingo, eta azken kalifikazioetatik ondorioztatuko den lehentasun ordenatik aterako da, beste izapiderik egin gabe, aukeratutako pertsonen behin-behineko zerrenda. Zerrenda hori argitaratzeko eta erreklamazioak egiteko 8.7 oinarrian xedatutakoa bete beharko da.

8.4. Lehentasun ordena aldatzea.

Hautaketa prozesua gainditu eta gero, desgaitasunen bat dutenentzat gordetako kupoan parte hartu duten hautagaiek lanpostuak hautatzeko lehentasun ordena aldatzeko eskaera egin diezaiokete organo eskudunari, norberaren mendetasun arrazoiak, lekualdatzeko zailtasunak edo antzeko bestelako arrazoiak direla eta.

Hautagaiak, lehentasun ordena aldatzeko eskaerarekin batera, eskainitako lanpostuen artetik bere lehentasun ordena zein den adierazten duen dokumentua aurkeztu behar du, eta, era berean, eman dituen arrazoiak lanpostuak hautatzeko erabakigarriak direla ere egiaztatu beharko du. Eskaera balioztatzeko eskumena izango duen organoak txostenak eta, kasuan kasu, laguntza eska diezaieke zerbitzu espezializatuei, eta hautagaiari ere ziurtagiri edo informazio gehigarriak eska diezazkioke. Orobat, hautagaiari osasun azterketa egin behar zaiola erabaki dezake, baldin eta zereginak egiteko gaitasun funtzionalik ez duela adierazten duen seinaleren bat badago.

Eskaera behar bezala justifikatuta badago, lehentasun ordena aldatzea ebatziko da. Egintza horretan, ordea, desgaitasuna duen pertsonari lanpostua eskuratzeko aukera emateko beharrezko den aldaketarik txikiena baino ez da egin beharko. Nolanahi ere, ez da lehentasun ordena aldatzea erabakiko baldin eta pertsona horrek lanpostua eskuratu ahal izateko nahikoa bada egokitu zaion lanpostua egokitzea.

Lehentasun ordena aldatzeko eskaerarik aurkeztu ez baina osasun azterketatik ondorioztatzen bada badaudela arrazoiak desgaitasuna duen izangai batek eskainitako lanposturen bat ez eskuratzeko, udal organo eskudunak erabaki dezake lehentasun ordena aldatzea, egoki jotako laguntza espezializatua lortu ondoren eta izangaiari 10 eguneko entzunaldi-epea eman ondoren.

8.5. Lanpostua egokitzea.

Desgaitasunen bat duten pertsonek dagokien lanpostua egokitu dadin eska dezakete. Eskaera hori eskainitako lanpostuen lehentasun ordena adieraziko duten dokumentuan egin behar dute. Eskaerarekin batera, lanpostua egokitzea egoki dela eta egokitzapen hori eskatutako lanpostuetako zereginak egitearekin bateragarri dela egiaztatzen duen txostena aurkeztu behar dute. Txosten hori organo eskudunak egin behar du.

Lanpostuak artean esleitu gabe izango direnez, hainbat lanpostu egokitzeko eskaera egin daiteke.

Eskaera balioztatzeko eskumena izango duen organoak txostenak eta, kasuan kasu, laguntza eska diezaieke zerbitzu espezializatuei, eta hautagaiari ere ziurtagiri edo informazio gehigarriak eska diezazkioke. Orobat, hautagaiari osasun azterketa egin behar zaiola erabaki dezake, baldin eta zereginak egiteko gaitasun funtzionalik ez duela adierazten duen seinaleren bat badago.

Lanpostua egokitzearen helburua da desgaitasunen bat duen pertsona esleitu zaion lanpostuko berezko eginkizunak egiteko gai izatea; berdin dio zein modalitatetan parte hartu duen. Nolanahi ere, esleitutako lanpostuko berezko eginkizunak gauzatzeko bateragarritasuna lanpostu horretan egin daitezkeen egokitzapenak kontuan hartuta balioztatuko da.

A quien no manifieste en tiempo y forma el orden de preferencia respecto a los puestos ofertados se le adjudicará el último puesto que quede por adjudicar, para lo que deberá cumplir necesariamente los requisitos de ese puesto.

No obstante, en aquellas convocatorias en las que se ofertan únicamente varias dotaciones del mismo puesto, se prescindirá del proceso de elección de puestos y el orden de prelación derivado de las calificaciones finales dará lugar, sin más trámites, a la relación provisional de personas seleccionadas; resultando de aplicación la base 8.7 en lo que respecta a la publicación y a la interposición de reclamaciones.

8.4. Alteración del orden de prelación.

Una vez superado el proceso selectivo, las personas aspirantes que han participado por el cupo de reserva para personas con discapacidad podrán solicitar al órgano competente la alteración del orden de prelación para la elección de los puestos de trabajo, por motivos de dependencia personal, dificultades de desplazamiento u otros análogos.

La alteración del orden de prelación se solicitará por la persona aspirante junto con el documento en el que manifieste su orden de preferencia respecto a los puestos ofertados, y deberá acreditar que las circunstancias alegadas son determinantes para la elección de puestos. El órgano competente para valorar la solicitud podrá recabar informe y, en su caso, colaboración de servicios especializados, así como solicitar al aspirante certificados o informaciones adicionales. Asimismo, podrá acordar que la persona aspirante se someta a un reconocimiento médico en los supuestos en los que haya indicios de que carece de la capacidad funcional para el desempeño de las tareas.

Cuando la solicitud se encuentre debidamente justificada, se acordará la alteración del orden de prelación que deberá limitarse a realizar la mínima modificación necesaria para posibilitar el acceso al puesto de la persona con discapacidad. No obstante, no se acordará la alteración del orden de prelación cuando para acceder al puesto sea suficiente con la adaptación del puesto que le hubiese correspondido.

En aquellos supuestos en los que no habiéndose presentado una solicitud de alteración del orden prelación se concluya del reconocimiento médico que existen motivos para que la persona con discapacidad no acceda a alguno o algunos de los puestos de trabajo ofertados, el órgano competente podrá acordar alterar el orden de prelación tras recabar la colaboración especializada que estime oportuna, y tras conceder a la persona aspirante un plazo de audiencia de 10 días.

8.5. Adaptación del puesto de trabajo.

Las personas con discapacidad podrán pedir la adaptación del puesto o de los puestos de trabajo correspondientes. La solicitud se realizará en el documento en el que señalen su orden de preferencia respecto a los puestos ofertados, debiendo acompañar a esa solicitud un informe expedido por el órgano competente que acredite la procedencia de la adaptación y la compatibilidad con el desempeño de las funciones que tengan los puestos solicitados.

Al no estar aún adjudicados los puestos la solicitud de adaptación podrá referirse a una pluralidad de puestos.

El órgano competente para valorar la solicitud podrá recabar informe y, en su caso, colaboración de servicios especializados, así como solicitar al aspirante certificados o informaciones adicionales. Asimismo, podrá acordar que la persona aspirante se someta a un reconocimiento médico en los supuestos en los que haya indicios de que carece de la capacidad funcional para el desempeño de las tareas.

La finalidad de la adaptación del puesto es que la persona con discapacidad, independientemente de la modalidad de acceso por la que haya participado, pueda desarrollar las funciones propias del puesto asignado. En cualquier caso, la compatibilidad para desempeñar las funciones propias del puesto adjudicado se valorará teniendo en cuenta las adaptaciones que puedan realizarse en el mismo.

EK\CV GAO-I-2025-00495

Encuentra Músico
www.encuentramusico.es

8.6. Lanpostuak esleitzea.

Eskatutako baldintzak –hizkuntza-eskakizuna barne, baldin nahitaezkoa bada– betetzen dituzten hautagaien artean esleituko dira lanpostuak, hautagai bakoitzaren lehentasun ordena eta haiek adierazitako lehentasunak kontuan hartuta.

Lehentasun ordena erabakigarria izango da eskainitako lanpostuak esleitzeko, baina aintzakotzat hartu beharko da 8.4 oinarrian ezarritako salbuespena, lehentasun ordena aldatzea erabakitzen denerako.

8.7. Aukeratutako pertsonen zerrenda.

Lanpostuak aukeratzeko epea amaitzen denean, behin-behineko zerrenda egingo da. Zerrenda horretan, aukeratutako pertsonak eta bakoitzari dagokion lanpostua jasoko dira. Zerrenda hori iragarki taulan eta webgunean argitaratuko da organo eskudunak emango duen ebazpenaren bidez, eta 10 egun balioduneko epea izango da erreklamazioak jartzeko.

Erreklamazioak jartzeko epea amaitu, eta jarritako erreklamazioak –baldin eta baten bat jarri bada– ebatzitakoan, aukeratutako pertsonen eta bakoitzari esleitu zaion lanpostuaren behin betiko zerrenda argitaratuko da.

Bederatzigarrena. Betebeharrak betetzea egiaztatzea.

9.1. Aukeratutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratutakoan, 15 egun balioduneko epea zabalduko da (argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita) aukeratutako pertsona horiek hautaketa prozesuan parte hartzeko beharrezkoak ziren baldintzak egiaztatzeko balio duten dokumentuak Donostiako «Musika eta Dantza Eskola» TEAren Erregistroan aurkeztu ditzaten. Dokumentu hauek:

1. Nortasun Agiri Nazionala edo, kasuan kasu, pasaportea edo nazionalitatea egiaztatzeko beste edozein agiri. Aurkeztuko den agiriak indarrean egon behar du.

Hautaketa probetan espainiarren edo Europar Batasuneko kide diren herrialdeetako nazionalen ezkontide direlako edo ezkontidearen seme-alaba direlako parte hartu duten hautagaiek ahaidetasun lotura egon badagoela egiaztatzen duten agiriak, agintari eskudunek eginak, aurkeztu behar dituzte. Horrez gain, lotura hori duen ahaide espainiarraren edo Europar Batasuneko nazionalaren zinpeko aitorpena edo promesa ere aurkeztu behar dute. Aitorpen horretan, ezkontidearengandik zuzenbidez bananduta ez dagoela eta, kasuan kasu, hautagaia ezkontidearen kontura bizi dela edo bere kargu dagoela adierazi behar du espainiarrak edo Europar Batasuneko nazionalak.

2. Egiaztagiri medikoa, Donostiako Udalaren Lan Osasuneko Zerbitzuak emandakoa. Han, argi adierazi beharko da pertsonak zereginak gauzatzeko gaitasun funtzionala baduela eta zeregin horretan jardutea galaraziko dion inolako gaixotasun edo muga fisiko zein psikikorik ez duela.

3. Zinpeko aitorpena edo promesa, zera dioena: ez dela diziplina espedienteren baten bidez Administrazio Publiko, organo konstituzional edo autonomia erkidegoetako organo estatutarioren bateko zerbitzutik banatua izan, eta ez duela, ebazpen judizialen baten bidez, gaitasungabetze erabateko edo berezirik enplegu edo kargu publikoetan aritzeko, banatu edo gaitasungabetu den kidegoan edo eskalan sartzeko. Era berean, ezintasunarekin edo bateraezintasunarekin lotutako legezko arrazoiren bat ez duela egiaztatzeko zinpeko aitorpena edo promesa ere aurkeztu beharko da.

Espainiar herritartasuna ez duenak, berriz, gaitasungabetuta edo pareko egoeraren batean ez dagoela eta bere Estatuan enplegu publikoan jardutea galarazten dion diziplina zigorrik edo antzekorik jaso ez duela egiaztatzeko zinpeko aitorpena edo promesa aurkeztu beharko du.

Baldintza hori betetzen dutela egiaztatzeko, Erakunde Autonomoak inprimaki normalizatu bat jarriko du aukeratutako pertsonen eskura.

8.6. Adjudicación de puestos de trabajo.

La adjudicación de los puestos se realizará entre aspirantes que cumplan los requisitos exigidos, incluido el perfil lingüístico si fuera perceptivo, atendiendo al orden de prelación de cada persona aspirante y a las preferencias manifestadas por cada una de ellas.

El orden de prelación resultará determinante para adjudicar los puestos ofertados, si bien se deberá tener en cuenta la excepción prevista en la base 8.4 para los casos en los que se acuerde la alteración del orden de prelación.

8.7. Lista de personas seleccionadas.

Finalizado el plazo para realizar la elección de puestos se elaborará una relación provisional que contendrá las personas seleccionadas y el puesto que le corresponde a cada una. Esa relación se hará pública en el tablón de anuncios y en la página web mediante una resolución emitida por el órgano competente y se otorgará un plazo de 10 días hábiles para interponer reclamaciones.

Finalizado el plazo de reclamaciones y una vez resueltas las que, en su caso, se hayan interpuesto, se publicará la relación definitiva de personas seleccionadas y el puesto adjudicado a cada una.

Novena. Acreditación de requisitos.

9.1. Una vez publicada la relación definitiva de las personas seleccionadas, éstas dispondrán de un plazo de 15 días hábiles, a contar desde el día siguiente al de la publicación, para presentar en el Registro del OAL «Escuela de Música y Danza» de San Sebastián los documentos que sirvan para acreditar los requisitos de participación en el proceso selectivo, siendo esos documentos los que se enumeran a continuación:

1. El Documento Nacional de Identidad o, en su caso, el pasaporte o cualquier documento acreditativo de la nacionalidad. El documento que se presente deberá encontrarse en vigor.

En el caso de personas aspirantes que hayan concurrido a las pruebas selectivas por tratarse de cónyuges, o descendientes del cónyuge, de españoles o nacionales de países miembros de la Unión Europea deberán presentar los documentos expedidos por las autoridades competentes que acrediten el vínculo de parentesco y una declaración jurada o promesa del español o nacional de la Unión Europea con el que existe este vínculo, de que no está separada de derecho de su cónyuge y, en su caso, del hecho de que la personas aspirante vive a sus expensas o está a su cargo.

2. Certificado médico expedido por el Servicio de Salud Laboral del Ayuntamiento de San Sebastián mediante el que se acredite que se posee la capacidad funcional para el desempeño de las tareas y que no se padece enfermedad o limitación física o psíquica que impida ese desempeño.

3. Declaración jurada o promesa de no haber sido separada mediante expediente disciplinario del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas o de los órganos constitucionales o estatutarios de las Comunidades Autónomas, ni hallarse en inhabilitación absoluta o especial para empleos o cargos públicos por resolución judicial, para el acceso del cuerpo o escala de funcionario en el que hubiese sido separada o inhabilitada. Asimismo, declaración jurada o promesa de no hallarse incursa en alguna de las causas legales de incapacidad o incompatibilidad.

Quien no tenga la nacionalidad española deberá presentar una declaración jurada o promesa de no hallarse inhabilitada o en situación equivalente, ni haber sido sometida a sanción disciplinaria o equivalente que impida, en su Estado, el acceso al empleo público.

Para la acreditación de este requisito el Organismo Autónomo pondrá a disposición de las personas seleccionadas un ejemplar normalizado.

EK\CV GAO-I-2025-00495

Encuentra Músico
www.encuentramusico.es

4. Oinarri berezietan eskatutako titulua edo titulua egiteko tasak ordaindu direla erakusten duen egiaztagiria.

Hautagaiek, baldin eta atzerrian eskuratutako titulua badute, titulu hori homologatuta edo baliokidetuta dagoela ziurtatuko duen egiaztagiria aurkeztu behar dute.

2.1.5 oinarriko azken paragrafoan azaldutako kasuan, lanbide arautuen arloan, aitortu zaion lanbide prestakuntza frogatu beharko du, Erkidegoko Zuzenbideko xedapenak oinarri.

5. Kasuan kasu, deialdi bakoitzaren oinarri berezietan eskatutako berariazko beste baldintza batzuk betetzen dituztela frogatzeko egiaztagiriak.

Deialdi baten oinarri berezietan aditzera ematen bada oinarri hauetako 2.1.6 atalean ezarritako baldintza bete behar dela, adingabeekin ohiko harremana izatea dakarten lanpostuak betetzeko deialdia delako, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ezezko ziurtagiria aurkeztu beharko da.

Nolanahi izanda ere, atzerritarrak diren edo beste nazionalitate bat duten herritarrek, aurrekoaz gain, zigor-kondenen gaineko ezezko egiaztagiria aurkeztu beharko dute, beren jatorrizko herrialdeetako edo herritarrak diren herrialdeetako agintariek emana, 2015eko abenduaren 11ko 1110/2015 Errege Dekretuak, Sexu Delitugileen Erregistro Zentrala arautzekoak, 3. artikuluko 1. atalean aipatutako delituak direla-eta.

6. Desgaitasunen bat dutenentzat gordetako kupoan parte hartu duten hautagaiek, bai eta adimen urritasunen bat duten pertsonentzat gordetako tokiak ere eskaintzen dituzten deialdi independenteetan parte hartu dutenek ere, ezgaitasun maila frogatzeko egiaztagiriak aurkeztu beharko dituzte, baldin eta 7.2.4, 8.4 eta 8.5 oinarrietan xedatutakoaren arabera lehenago eman ez badituzte.

9.2. Aipatutako agiri guztiak aurkeztu ezina behar bezala arrazoitzen bada, hautagaiak zuzenbidean onartzen den edozein frogabide erabili ahal izango du deialdiko baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko.

9.3. Donostiako «Musika eta Dantza Eskola» TEAn zerbitzu egin duten hautagaiek beren espedientean jasota ez dauden parte hartzeko baldintzak betetzen dituztela adierazten duten agiriak baino ez dituzte aurkeztu behar.

Era berean, ez da beharrezkoa izango betekizun bat egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztea, baldin eta Donostiako «Musika eta Dantza Eskola» TEAk bitarteko elektronikoen bidez egin baditzake izangaien datuei eta dokumentuei buruz egin beharreko egiaztapenak eta kontsultak, datu eta dokumentu horiek Administrazioak sortu baditu edo Administrazioaren esku badaude.

Betekizunak egiaztatzeko epea irekitzean, Erakunde Autonomoak adieraziko du zer datu edo dokumentu jasoko dituen zuzenean, izangaiek aurkeztu behar izanik gabe. Kontsultak kasu guztietan egingo dira, interesdunak aurka dagoela adierazi ezean, arrazoiak emanez; kasu horretan, egitea nahi ez duen kontsultari buruzko dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

Hautatutako pertsonek 9.1 oinarriko dokumentazioa aurkeztu behar badute eta aurkeztea ezinezkoa bada, izangaiak zuzenbidean onartutako edozein frogabideren bidez egiaztatu ahal izango du deialdian eskatutako betekizunak betetzen dituela.

9.4. Halabeharrezko arrazoirik izan gabe, hautagaiek ez badituzte aipatutako agiriak adierazitako epean aurkezten edo eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatzen, hautaketa prozesuan parte hartzetik erator daitezkeen eskubide guztiak galduko dituzte, eta haien jarduketa guztiak baliorik gabe

4. Titulación exigida en las bases específicas, o justificante del abono de las tasas para su expedición.

Las personas aspirantes con titulaciones obtenidas en el extranjero deberán aportar la documentación acreditativa de su homologación o convalidación.

En el supuesto recogido en el último párrafo de la base 2.1.5 se deberá acreditar el reconocimiento de la cualificación profesional, en el ámbito de las profesiones reguladas, al amparo de las disposiciones de Derecho Comunitario.

5. Acreditación documental de otros requisitos específicos exigidos, en su caso, por las bases específicas de cada convocatoria.

En el supuesto de que en las bases específicas de una convocatoria se señale que es exigible el requisito establecido en el apartado 2.1.6 de las presentes bases, por tratarse del acceso a puestos de trabajo que supongan el ejercicio de profesiones, oficios y actividades que impliquen contacto habitual con menores, se deberá aportar una certificación negativa del Registro Central de Delincuentes Sexuales.

En todo caso, las personas ciudadanas de origen extranjero o que tuvieran otra nacionalidad deberán, además, aportar certificación negativa de condenas penales expedido por las autoridades de su país de origen o donde sean nacionales respecto de los delitos que señala el apartado 1 del artículo 3 del Real Decreto 1110/2015, de 11 de diciembre, por el que se regula el Registro Central de Delincuentes Sexuales.

